

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko ekainaren 2ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Zerga premiazko araugintzako dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, ekainaren 2koa. Onestea COVID-19arekin lotura duten eta sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eragiten dieten premiazko neurriak.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 226/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onespena ematea garden-tasunaren eta informazio publikoa eskuratzearen 2019ko txostena jasotzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 227/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako kausengatik, enplegurako prestakuntzarako laguntzen 2020rako deialdia, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 808/2019 Erabakiaren bidez onetsia.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 228/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onespena ematea huts materiala zuzentzeari maiatzaren 12ko 205/2020 Erabakian, zeinaren bidez onetsi baitzen Arabako Lurralde Historikoko udalei jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2019ko probintzia eta estatu kuotak banatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 229/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onestea foru arau proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita 2020rako aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Araua; eta hura Batzar Nagusietara bidaltzea, izapidetu dadin.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 230/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Baimena ematea Ilar-duiako Administrazio Batzarrari epe motzeko kreditu eragiketa bat hitzartu dezan, 183.946,96 eurokoa, aldi batez finantzatzeko "Kontzeju aretoa, erabilera anitzeko aretoa, biltegia eta bolatokia eraikitze obra".

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 231/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onespena ematea "Villamaderneko hondakin uren kolektorea Espejorekin lotzeko eraikuntza proiektua"ri egindako alegazioen erantzunari, eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari eta okupatu beharrari, eta okupazio hori presazkoa dela adierazteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 232/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onespena ematea "Arabako Lurralde Historikoan eskaeren araberako bidaiarien garraio zerbitzua. Loteak: Trebiñu mende-baldea eta Zuia hegoaldea" zerbitzuaren likidazioari eta fidantzak itzultzeari.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 233/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onespena ematea urtebete luzatzeari Ortzadar-Ondare Babesa ABEEari esleitutako kontratua, Arabako parke naturaletan kontrol, zaintza eta jendearentzako zerbitzua emateko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 234/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onespena ematea Galemys SL enpresari esleitutako kontratua urtebete luzatzeari, Garaio, Landa eta Mendixurko lurralde parkeetan, Uribarri Ganboako urtegiaren adar hezeetan eta ibilbide berdearen inguruan jendearen harrerarako, ingurumen hezkuntzarako, bizikletak maileguan uzteko eta ingurumen, kontrol eta zaintza zerbitzuak emateko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 235/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onespena ematea urtebete luzatzeari Servicios Agroforestales Euria SL enpresari esleitutako kontratua, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarea zaindu eta mantentzeko.